


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren 2012ko abenduan aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko abendua, 2011koarekin alderatuta) eraikuntza kostuak %0,5 gutxitu dira

2012ko abenduan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,5, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak. 2006-2012



(*) Gehikuntza abenduko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2012ko abenduan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,4 jaitsi dira, aurreko hilaren aldean.

Abenduan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,3ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,8koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,9 jaitsi dira eta Obra Zibilekoenak %1,2.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Makineria (%5,8), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%3,8), eta Material elektrikoa (%2,5) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2012ko abendua 2011koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Ez-metalezko mineralen erauzketa (%-4,8), Metalurgia (%-3,0) eta Petrolio fintzea (%-0,2).

**ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO ABENDUA.
DATU AURRERAPENA**

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,9	-0,3	-0,5	-0,5
ERAIKINAK	118,9	-0,2	-0,5	-0,5
OBRA ZIBILA	123,7	-0,6	-0,6	-0,6
LEHENGAIEN KOSTUA	118,8	-0,4	-1,0	-1,0
ERAIKINAK	117,5	-0,3	-0,9	-0,9
OBRA ZIBILA	123,5	-0,8	-1,2	-1,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.